



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 13a

146. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Saltoki Handien gaineko Zerga arautzen duen Foru Lege proiektua (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (7. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-politika orokorrari eta funtzionario-araubidearen arlokoari buruzkoa, erabaki judizial espresetan jaso gabe dauden izaera ideologikoko edo aurrekari pertsonalen arloko baldintzen ingurukoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014an ezar dezan kultur produktuen euskarri anitzeko kontsumoa pizteko programa bat. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri ezar ditzan ezgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroetako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala eraiki dezan ikastetxe publiko berria Sarrigurenen. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko errenta eman diezaien hura 2011-12-12a baino lehen eskatu eta ukatu edo murriztu zitzaienei. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren karietara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta ekitaldiak, urteurren hori ospatzeko. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin betiko konponbidea eman diezaion A-1 autobideaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza Garcia jaunek aurkeztu dute (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu guztiz errefusatzeko duela Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen aurreproiektua. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Giza Eskubideen Deklarazioarekiko bere erabateko konpromisoa adierazten baitu, eta bere errespetua erakusten baitio Nelson Mandelaren figurari. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun Departamentuak UEMAko ordezkariak egindako bilera-eskariei ez erantzuteko arrazoiei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (19. or.).
- Galdera, jakitekoa zein diren Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 2489/2009 Ebazpenean, non lanpostu guztietara sartzeko irizpide orokorrak ezartzen baitira, euskaraz jakitea kontuan ez hartzearen zergatiak, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Olaztiko Cementos Portland Valderrivas S.A.aren produkzio-prozesua baimentzeko jarraitu dituen irizpideei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Pirinioetako Lan Komunitatearen XXXI. Osoko Bilkurara joateko behar bezala baimendutako pertsonak kanporatzeari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (21. or.).
- Galdera, ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentroak kudeatzen dituzten enpresekiko itunetara bideratzen diren diru-zenbatekoak handitzeko asmoari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (22. or.).
- Galdera, ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta zentroetako langileei dagokien gaikuntza-osagarriaren bigarren tartearen kobrantza segurtatzeko neurriei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Tafallako Kultur Etxea finantzatzeko emandako diru-kopuruei buruzkoa eta kultur etxe horretan altzariak jartzeko laguntzak eta bera abian jartzea direla-eta dauden aurreikuspenei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Errioxako jatorri izendapena duten eremuak Unescoren kultur ondare deklaratzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (25. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Tuterako Udalarekin negoziatutako hitzarmena sinatzeko, zeinaren bidez urte anitzeko finantzaketa ezarri nahi baita Tuterako Musika Kontserbatorio Profesionalerako, Pedro Rascón Macías jaunak egina (26. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen hartutako erabakiak betetzeko eta ekitaldi honetan Nafarroako ikasleen gurasoen elkartearen federazioetarako diru-laguntzen deialdiak egiteko, Pedro Rascón Macías jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Aurizberrin basea duen anbulantziari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak zenbait unibertsitatekin dauzkan lankidetzak hitzarmenei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (28. or.).
- Galdera, pertsonak eta ibilgailuak lurzoru ez-urbanizagarriko bideetatik iragatea arautzearen gainean Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2011n, 2012an eta 2013an artatutako lan istripuei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (29. or.).
- Galdera, Foru Gobernuaren eta Estatukoaren arteko hitzezko akordioari buruzkoa, trafikoaren arloko eskumenen transferentzia dela eta, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu euskalduneko eta eremu mistoko udalen izendapen ofizialei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (31. or.).
- Galdera, Europar Batasuneko txosten baten arabera osasunerako zentimoa legearen aurkakoa izan daitekeela dioen berriari buruzkoa. Galdera erretiratzea (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Saltoki Handien gaineko Zerga arautzen duen Foru Lege proiektua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2013ko azaroaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Saltoki Handien gaineko Zerga arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Saltoki Handien gaineko Zerga arautzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenkoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Saltoki Handien gaineko Zerga arautzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Saltoki Handietarako Zerga bat sortzeko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeak saltoki handietarako zerga ezarri zuen, Nafarroako Foru Komunitatean daudenei aplikatzeko. Zerga horren xedea da merkataritza-guneen eta saltoki handien ahalmen ekonomikoa kargatzea, kanpo-efektu negatiboak sortzen baitituzte, bizitza kolektiboan eragina duten kostu ekonomiko eta sozialak bere gain ez

hartzeagatik, bereziki hiriguneetako ehunari eta jardueri, lurraldearen antolamenduari, ingurumenari eta azpiegiturei dagokienez.

Konstituzio Auzitegiak 2012ko azaroaren 14an emandako epaian ezetsi egin du aipatu foru legearen aurka Gobernuak lehendakariak aurkeztutako konstituziokontraktasuneko errekurtsioa. Epai hura betetzeko, eta 23/2001 Foru Legean jasotako ahalmen-emateetan xedatutakoaz baliatuz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari ahalmena ematen baitio foru lege hura garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko, eta bereziki subjektu pasiboen errola egiteko, zerga aplikatzeko beharrezkoak diren datuekin, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak abenduaren 24ko 1061/2012 Foru Agindua onetsi zuen, saltoki handietarako zergaren errola prestatzeko arauak eta zerga kudeatzeko sistemarenak ematen dituen 2012. urterako, Saltoki Handietarako Zerga bat sortzeko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legea garatzeko asmoz, eta 910 eredu onesten duena. Foru agindu horrek 2012an zerga ordainarazteko nahitaezkoak ziren alderdiak arautu zituen, zerga kudeatzeko eta 2012ko zergadunen errola egiteko prozedurarekin lotutakoak hain zuzen ere.

Saltoki handien gaineko zergaren kudeaketan izandako esperientzia dela medio, Nafarroako Zerga Ogasunak aldaketa batzuk proposatu ditu, zergaren kudeaketa oztopatzen zuten edo ordaindu beharreko tributu kuota kalkulatzeko egoera bidegabeak sortzen zituzten arazoak gainditzeko.

Helburu horrekin, lege honek bost kapitulu ditu, hamahiru artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. I. kapitulu foru legearen xedea eta aplikazio esparrua jasotzen dira, bai eta zergapetu beharreko gaia ere. II. kapitulu zergapeko egintza, zergaren menpe ez dauden kasuak eta subjektu pasiboa arautzen dira. Zergapeko egintzari dagokionez, betebeharrak kendu da, saltokiek kasuan kasuko merkataritza lizentzia eskuratu izanarena alegia, eta zehazten da zein diren saltoki handiak, produktuen salmenta eta erakusketarako azalera erabilgarria 2.000 metro

koadrotik gorakoa dutenak, hain zuzen. Finean, zergaren aplikazio esparrua zabaldu eta erraztu egin da, produktuen salmenta eta erakusketarako 2.000 metro koadroko gutxieneko azalera erabilgarria eskatuko baita, eta araua ulertzeko garaian aurreko testuak eragiten zituen zalantzak argitu dira beraz.

Zerga-oinarria eta likidazio-oinarria, karga tasa eta zerga kuota III. kapituluaren zehazten dira. Kapitulu horretan nabarmendu behar da produktuen salmenta eta erakusketarako azalera erabilgarriaren kontzeptua zehaztean egin den hobekuntza. Azalera erabilgarritzat hartzen da produktuak erakusteko eskuarki nahiz aldi baterako erabiltzen dena, barne hartuta jendea pasatzeko tokiak eta produktuak aurkeztu, eman eta kobratzekoak ere, baina kontuan hartu gabe honakoak: bulegoak, aparkalekuak, zamalanetarako eremuak eta biltegiak, erosleei itxitakoak. Zergapeko egintzarekin lotuta, 2.000 metro koadroko azalera salbuesirik dagoela deklaritzen da. Bestetik, aparkalekuetarako erabiltzen den azalera nola kontatu argitzen da, eta mota hauek bereizten dira: beren aparkalekuak dituzten saltokiak, aparkaleku komunak dituztenak, beren instalazioetan aparkalekurik ez dutenak, eta, azkenik, aparkalekuetarako azalera beraiaz ez, baina aparkalekuetako tokien kopurua zehaztuta dutenak. Aparkalekuetarako gutxieneko eta gehieneko azalera aurreikusi dira. Amaitzeko, azpimarratu behar da oraingoan ez dela kontuan hartuko biltegiek, tailerrek, prestalekuek eta ekoizpenerako eremuek hartzen duten azalera, subjektu pasiboaren ahalmen ekonomikoaren behar bezain adierazgarria ez delako.

IV. kapituluak zergaldia eta sortzapena arautzen ditu, eta V. kapituluak, berriz, zergaren kudeaketari buruzkoa da.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, zergaren subjektu pasiboaren errolda urtero egin eta argitaratzearen ordean, zergaren autolikidaziorako sistema bat ezarriko da, kudeaketari begira abantaila asko dituen, bai Nafarroako Zerga Ogasunarentzat bai zergaren subjektu pasiboentzat. Zergaren kudeaketari buruzko alderdi batzuk, autolikidazioen aurkezpena eta ordainketa, esate baterako, aurrerago zehaztuko dira, lege hau erregelamendu bidez garatzen denean.

Xedapen indargabetzaile bakarrak Saltoki Handietarako Zerga bat sortzeko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legea indargabetzen du, eta azken xedapenetako lehenak zehazten du foru lege honek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen dituela ondorioak.

Foru lege proiektuak betetzen ditu, gainera, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen Testu Bateginaren 158. artikuluan Biltzarreko Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraren bidezko tramitaziorako ezartzen diren baldintzak, presakoa baita onetsi eta argitaratzea. Araua zailtasunik gabekoa da, Parlamentuan prozedura hori erabiliz eztabaidatu eta tramitatzeko modukoa.

Horrexegatik, Parlamentuko Mahaiari eskatzen zaio, Eledunen Batzordearekin adostuta erabaki dezan zuzenean eta irakurketa bakarrean tramitatzeko Biltzarreko Osoko Bilkuran, behar diren zuzenketak aurkezteko aukera ukatu gabe.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Foru legearen xedea eta aplikazio esparrua.

Foru lege honen xedea da saltoki handien gaineko zerga bat sortzea, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean ezarritako guztiei ezarriko zaiona.

2. artikulua. Zergak zergapetzen duen gaia.

Zerga honek saltoki handien ahalmen ekonomikoa kargatzen du, kanpo-efektu negatiboak sortzen baitituzte, bizitza kolektiboan eragina duten kostu ekonomiko eta sozialak bere gain ez hartzeagatik, bereziki hiriguneetako ehunari eta jarduerari, lurraldearen antolamenduari, ingurumenari eta azpiegiturei dagokienez.

II. KAPITULUA **Zergapeko egintza, definizioak eta subjektu pasiboa**

3. artikulua. Zergapeko egintza.

1. Zergapeko egintza da txikizkako salmentan aritzen diren banakako saltoki handien jarduera eta funtzionamendua, hiriguneetan eta bertako jardueretan, lurraldearen antolamenduan, ingurumenean eta azpiegituretan sortzen duten eragina dela eta.

2. Banakako saltoki handiak produktuen salmenta eta erakusketarako 2.000 metro koadrotik gorako azalera erabilgarria dutenak dira.

4. artikulua. Definizioak.

1. Oro har, merkataritzaren antolamenduari dagozkion kontzeptuak eta sailkapenak Nafarroan merkataritzaren gaineko araudian xedatutakoak zuzenduko ditu.

2. Nolanahi ere, saltoki handiaren kontzeptuari dagokionez, 3.2 artikuluan xedatutakoak aginduko du.

5. artikulua. Zergaren menpe ez dauden kasuak.

Ez dira zergaren menpe egonen honako arlo hauetan baizik aritzen ez diren banakako saltoki handiak: lorezaintza, automoziorako erregaien hornikuntza, ibilgailuen salmenta, eraikuntzako materialen, makineriaren eta industria hornigaien salmenta.

6. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zergaren subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak edo juridikoak eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak, 3. artikuluaaren definizioaren arabera banakako saltoki handi baten titular direnak, saltoki hori saltoki kolektibo handi baten barruan nahiz kanpoan egon.

III. KAPITULUA

Zerga-oinarria, likidazio-oinarria, karga-tasa eta kuota

7. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga-oinarria banakako saltokiaren azalera osoa da, metro koadrotan adierazia, kontzeptu hauek osatua:

a. Produktuen salmenta eta erakusketarako azalera erabilgarria. Azaleratzat hartzen da produktuak erakusteko eskuarki edo aldi baterako erabiltzen dena, bai eta jendea pasatzeko tokiak eta produktuak aurkeztu, eman eta kobratzekoak ere. Ez dira sartuko, berariaz, honakoak: bulegoak, aparkalekuak, zamalanetarako eremuak eta biltegiak, erosleei itxitakoak, eta, oro har, sarbidea mugatua duten gunee edo instalazio guztiak.

Kontzeptu hori murriztuta kontatuko da, 2.000 metro koadroko azalera salbuetsirik.

b. Aparkalekuetarako azalera. Aparkalekuetarako azaleratzat hartzen da ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen dena, edozein dela erabilerarako gaitzen duen titulu juridikoa, dela saltoki edo merkataritzako barrutiko erosleen edo langileen zerbitzuan dagoena, dela salgaien zamalanak egiteko ibilgailuek erabiltzeko dena, estali gabekoa edo estalia izan, eta barne hartuta ibilgailuak eta pertsonak ibiltzeko eremuak, kontrolerako guneak eta zerbitzuarekin lotutako beste edozein.

Ondorio horietarako, aparkalekuetako azalera zein den jakiteko, arau hauek aplikatuko dira:

Lehena. Beren aparkalekua duten edo beste saltoki batzuekin batera aparkaleku komuna duten saltokien kasuan, berariaz eta frogatzeko moduan adierazita baldin badago saltoki bakoitzak aparkalekuetan zenbat toki duen, toki horien azalera erreala hartuko da aintzat.

Bigarrena. Aparkalekuetarako eremu komuna duten saltokien kasuan, saltoki bakoitzari dagozkion tokiak zenbat diren berariaz adierazirik ez dagoenean, edo toki horiek bereizirik edo banaka seinalatzaturik ez daudenean, saltoki bakoitzari esleituko zaion aparkalekuetako azalera izanen da produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren proportzioan dagoekia.

Hirugarrena. Era berean, beren bezeroentzat beren instalazioetan aparkalekurik ez duten saltokien kasuan, aparkalekuetarako ekipamendua baldin badute horretarako propio erabiltzen diren besteren eraikinetan edo aparkaleku publiko edo pribatuetan, aurreko arauak aplikatuko dira.

Laugarrena. Aparkalekuetarako azalera berariaz adierazirik ez dagoenean, baina bai, ordea, aparkalekuko tokien kopurua, 28 metro koadroko azalera kalkulatu da toki bakoitzeko.

Edozein kasutan ere, zerga-oinarria zehazteko, aurreko arauak aplikatuta lortzen den aparkalekuetako azalera erreala hartuko da aintzat. Aparkalekuetarako gutxieneko azalera produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren ehuneko 15ekoa izanen da. Aparkalekuetarako gehieneko azalera, berriz, azalera erabilgarri horren ehuneko 50ekoa izanen da.

Kontzeptu hori murriztuta kontatuko da, 2.000 metroko azaleraren eta produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarriaren artean dagoen aldearen proportzioan. Azkenik, 0,9ko koefiziente murriztailea aplikatuko zaio.

8. artikulua. Likidazio oinarria.

Altzariak, saneamenduko artikulua, ateak eta leihoak eta brikolajeko gauzak, gehienbat, saltzen aritzen diren subjektu pasiboen likidazio oinarria zerga-oinarriari ehuneko 60ko murrizketa aplikatuz lortuko da.

9. artikulua. Karga-tasa.

Karga-tasa 12 eurokoa izanen da metro koadroko.

10. artikulua. Zerga kuota.

1. Zerga kuota aurreko artikuluko karga tasa likidazio oinarriari aplikatzearen emaitza izanen da.

2. Saltokia irekitzen den urteko zerga kuota izanen da kuotaren urteko zenbatekoa egun horretarako.

tik urtea amaitu arte dauden egunen kopuruaz hainbanatuta ateratzen den emaitza.

3. Saltokia ixten den urteko zerga kuota izanen da kuotaren urteko zenbatekoa zergaldiaren hasieratik ixten den egunera arte dauden egunen kopuruaz hainbanatuta ateratzen den emaitza.

4. Zergaren likidaziorako oinarri diren elementuetan aldaketak gertatu diren urte naturalari dagokion tributu kuota hauxe izanen da: aldaketaren eragina zenbat egunez izan duten, aldatutako elementuak kopuru horrekin hainbanatuta ateratzen den emaitza.

IV. KAPITULUA **Zergaldia eta sorrarazpena**

11. artikulua. Zergaldia eta sorrarazpena.

1. Hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa ukatu gabe, zergaldia bat dator urte naturalarekin, eta zerga urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen sorraraziko da, non ez zaion jarduerari uzten egun hori baino lehenago, kasu horretan jardueraren azken egunean sorraraziko baita.

2. Saltokia urtarrilaren 1aren ondotik irekitzen bada, zergaldia kontatuko da saltokia irekitzen den egunetik urte bereko abenduaren 31ra arte.

3. Saltokia ixten bada, zergaldia urtarrilaren 1etik saltokia ixten den egunera artekoa izanen da.

V. KAPITULUA **Zergaren kudeaketa**

12. artikulua. Kontrola eta ikuskapena.

Zerga kudeatzea eta haren gaineko ikuskapenak egitea Nafarroako Zerga Ogasunari dagokio.

13. artikulua. Betebehar formalak eta laguntzeko betebeharra.

1. Subjektu pasiboak beharturik egonen dira zerga honen aitortpena aurkeztera, bai eta zerga zorra zehaztu eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak ezartzen dituen tokian, moduan eta epean ordaintzera ere.

2. Nafarroako Zerga Ogasunak beste administrazioei eskatu ahal izanen die zergaren likidaziorako behar dituen datuak eta aurrekariak jakinarazteko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legea, Saltoki Handietarako Zerga bat sortzekoa, indargabetzen da.

Azken xedapenetan lehena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Azken xedapenetan bigarrena. Erregelamenduzko arauak emateko gaikuntza.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari egindako erregelamenduzko gaikuntzak ukatu gabe, Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko urtarrilaren 10eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Polizie buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Polizie buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko urtarrilaren 10eko eguerdiko hamabiak arte**

luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2013ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-politika orokorrari eta funtzionario-araubidearen arlokoari buruzkoa, erabaki judizial espresetan jaso gabe dauden izaera ideologikoko edo aurrekari pertsonalen arloko baldintzen ingurukoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-politika orokorrari eta funtzionario-araubidearen arlokoari buruzkoa, erabaki judizial espresetan jaso gabe dauden izaera ideologikoko edo aurrekari pertsonalen arloko baldintzen ingurukoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura urgentea aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-politika orokorrari eta funtzionario-araubidearen arlokoari buruzko jabeldura, erabaki judizial espresetan jaso gabe dauden izaera ideologikoko edo aurrekari pertsonalen arloko baldintzak ezartzeari buruzkoa, hala irakaskuntzaren esparruan nola, oro har, funtzionarioen alorrean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2014an ezar dezan kultur produktuen euskarri anitzeko kontsumoa pizteko programa bat.

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita 2014an ezar dezan kultur produktuen euskarri anitzeko kontsumoa pizteko programa bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak eta Patxi Leuza García jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 196. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Eurobarometroak Europako esparruko herrialdeetan 2013ko apirillean eta maiatzean egindako inkesta baten arabera, Europar Batasuneko iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeek datu desberdinak dituzte kultur arloko parte-hartzeari eta kontsumoari buruz. Inkesta horretako datuak eta inkesta horren aurreko beste inkestakoak alderatuta –aurrekoa 2007koa da; alegia, krisia merkatuetan nabaritzen hasi gabe zegoeneko–, ikus daiteke nabarmen jaitsi direla kultur arloko parte-hartzea eta kontsumoa krisia gehien pairatu duten herrialdeetan. Aztertutako adierazlearen joeran zuzenean eragiten duten faktoreen artean daude herritarren hezkuntza eta errenta mailak, bai eta teknologia berrien gorakada ere, erabateko aldaketa ekarri duena herritarren ohitura eta formatuetan, kultur arloko kontsumoari dagokionez.

Txosten honek eta beste azterlan batzuek –besteak beste, SGAEren 2013ko urtekariak– argi eta garbi erakusten dute zer-nolako inpaktua izaten ari den krisi ekonomikoa kulturaren gainean. Gainera, joera negatibo etengabeak eta beste elementu batzuek, jada ez dakigu koiunturazkoak ala egiturazkoak diren –esaterako, finantzaketa publikoaren jaitziera eta herritarren errenta-mailen beherrakada–, paradigma teknologikoaren aldaketaren eta arte, kultura eta aisia arloko aldaketaren ohituren ondorioekin batera, iradokitzen dute joera hori ez dela hurrengo urteetan aldatuko.

Egoera horri gehitzen baldin bazaio kultur ondasunen eta zerbitzuen garestitzea –horietako askoren kasuan, BEZaren zerga-tasa % 8tik % 21era igo zen 2012ko irailaren 1etik aitzina–, urundu egiten dira epe laburrera suspertzeko itxaropenak, eta krisi larrian uzten ditu herritarren arte nahiz kultur garapena eta arte eta kultur eragilearen sektorearena berarena.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa dauka kulturaren arloan –Foruaren Hobekuntzako 44.8 artikuluan jasotzen denez gero–, eta Nafarroako Gobernuari dagokio kultura kontserbatu, sortu eta zabaltzen dela begiratzeko ardura. Halatan, une eta egoera honetan inoiz baino beharrezkoagoak dira arte eta kultur produkzioaren merkaturaren dinamizatzera bideratutako ekimenak, lehenago ere egin izan den moduan, gure Foru Komunitatean kultur produktu horien kontsumorako pizgarriak emanez.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2014rako ezar dezan euskarri anitzeko kultur produktuen kontsumoa pizteko programa bat, zeina herritarrentzat modurik erosoenean eta ahal den burokrasiarik txikienarekin izapidetuko baita, 200.000 euroko aurrekontuzkizkidurarekin.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri ezar ditzan ezgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroetako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait neurri ezar ditzan ezgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroetako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri ezar ditzan Ezgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroetako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

Ezgaitasuna duten pertsonen arretarako Nafarroako egoitzen sektoreko zentroetako bat (San Jose egoitza) publikoa da eta beste hamabiak enpresa pribatuek kudeatzen dituzte, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziarekin (PANA) itundutako zerbitzu publikoak kudeatzeko urte anitzeko kontratuen bidez. Kudeaketa pribatuko zentroetan 800 bat langile ari dira. Kudeaketa pribatuko zentro horiek sektoreko hitzarmena dute 2005. urtetik; Kontuen Ganberak eskatuta sustatu zen, Nafarroako Parlamentuaren beraren ekimenez.

Orain arte hitzarmen hori erreferentzia izan da pertsonen arretaren sektore osoarentzat (adinekoen arreta, adingabeen egoitzak, zentro okupazionalak), bide eman duelako zerbitzu publiko bermatuetako lan baldintzak homologatzeko eta kontrataziorako izapide ekonomiko eta administra-

tiboak bateratu eta errazteko. Hitzarmenak hiru edizio izan ditu jarraian: I. hitzarmena (2005-2008), II. hitzarmena (2009-2011) eta III. hitzarmena (2011-2012). Gaur egun gure Komunitatean itxi gabe dagoen hitzarmen sektorial bakanetako bat da, eta 2013ko abenduaren 31n amaituko zaio aurreraeragina.

Sektore honen lan egoera, adierazi dugunez, 2012ko urtarriletik hona krisi egoera da; lan giroa gaiztotuta dago eta epe ertainean horrek faktura pasako dio zerbitzuen kalitateari, enpleguaren kalitatearen oinarriak ezarri gabe ezin delako zerbitzuaren kalitaterik lortu.

Gertaera hauek ekarri dute halako egoera:

2012ko urtarriletik, Nafarroako Gobernuak, defizita murrizteko hartutako neurrien artean (1/2011 FLD), kontratuak gizarte zerbitzuen araudian aurreikusita dagoen bezala urtero KPlaren arabera eguneratzeari utzi dio (69/2008 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarria indargabetu du). Ondorioz, enpresa kudeatzaileek ez dituzte aplikatzen 2012rako hitzarmenean adostu ziren soldata-konpromisoak. 2012ko urtarrilaz geroztik langileek soldatak izoztuta dituzte eta % 6,1 murriztu zaie erosteko ahalmena.

Egoerak bere horretan iraun dezake hurrengo urteetan. Izan ere, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak eguneratzeko erreferentierik ez izateak negozioazio kolektiboa ixtea eragozten du, ezin baita inolako akordiorik itundu soldatak luzaro izoztuta edukitzearen oinarriaren gainean. Adostasunik ezean, autonomia erkidegoko hitzarmen sektorialaren aurreraeraginaren epea amaitzen denean gerta liteke Estatuko hitzarmenak indarra hartu eta zentroetako plantilletan soldata- eta lanaldi-eskala bikoitza sortzea.

Bestalde, kontratu gehienak (lau urtekoak) 2012-2014 bitartean berritu behar ziren, batzuk prozedura negoziatuaren bidez (Adacen, Ramón y Cajal eta Carmen Aldave bezalako zentro pribatuekiko itunak) eta beste batzuk lizitazio irekiaren bidez. Bada, erreklamazio administratiboak direla eta berritze prozesu hori guztia atzeratzen ari da eta horrek ere azken batean ondorio txarrak sortu ditu plantillen lan baldintzetan.

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak hitzarmenean itundu diren baldintzak erabil-

tzen ditu soldata-kostuak kalkulatzeko erreferentzia gisa, eta hein handian kostu horien arabera erabakitzen dira kontratuen lizitazioko gehieneko prezioak. Infanta Elena, Valle del Roncal, Las Hayas, Monjardín eta La Atalaya zentroen kasuan bada urte eta erdi baino gehiago kontratazio prozesua eteten eta atzeratzen hasi zela erreklamazio administratiboen ondorioz. Bitarte horretan enpresa kudeatzaileek luzapenean eutsi behar izan diote zentroen kudeaketari, baina ez dute jaso finantzaketa eguneratua, hitzarmenean ezarrita dagoen prestakuntza-antzinatasunaren igoera (lau urtean behin mugaeguneratzen den trebakuntzako osagarria) ordaintzeko behar dutena. Beraz, zentro horiek kudeatzen dituzten enpresek hitzarmena aplikatzeari utzi diote baita osagarri horren 2013ko urtariletik aurrerako tarte berriaren ordainketari dagokionez ere.

Ondorioz langileek hamaika hilabete daramatzate trebakuntzako osagarriaren bigarren tarte kobratu gabe eta % 5,8ko murrizketa gaineratu diote soldatak izoztuta egon diren bi urteetan metatutako % 6,1eko murrizketari; horrenbestez soldaten balio-galera dagoeneko % 12koa da. Horrek guztiak gizarte kotizazioei ere eragiten die.

Kontratu berriak izapidetu eta onartzeko atzerapen hori, langileen legezko ordezkarien iritziz, kontratu bat lizitatzen dutenean enpresek beren gain hartzen duten arriskuaren zati bat da eta ez litzuzke enpresak salbuetsi behar langileei ordaindu

beharrekoak ordaindu beharretik. Beraz, langileek lan arloko errekurtsioa jarri dute enpresen erabakiaren aurka. Horrek, ordea, ez die bermatzen kobratuko dutenik, bi urte ere iragan litezkeelako auziaren ebazpen irmoa izan arte.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea ezgaitasuna duten pertsonen arretarako Nafarroako zentroen finantzaketa egokia berma dezan, erabilitzaileen arretaren kalitateari eusteko eta zentro horietako langileen lan baldintzak ez hondatzeko.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea lan arloko betebeharrak bete daitezen ardura dadin eta bere esku dagoen guztia egin dezan zerbitzuen egonkortasuna eta kalitatea bermatuko dituen hitzarmen berria egin ahal izateko sektorean.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea Kontratuei buruzko Foru Legea alda dezan, halako moduan non zerbitzu publikoen adjudikazioa duten enpresek gizarte eta lan arloetako betebeharrak beteko baitituzte, enpleguaren kalitatea bermatu eta horrenbestez arretaren kalitatea hobetuko baita.

Iruñean, azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala eraiki dezan ikastetxe publiko berria Sarrigurenen.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala eraiki dezan ikastetxe publiko berria Sarrigurenen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Gaur egun, haur eta lehen irakaskuntzarako ikaspostu publikoek Sarrigurengo ikastetxe publikoaren egitura-ahalbideak gainditzen dituzte. Argi dago ez dagoela behar beste tokirik Sarrigurenen bizi diren ikasle guztiak hartzeko, baldin eta familiek, beren eskubidea baliatuta, seme-alabak herriko ikastetxe batean irakaskuntza publikoan eskolatzera erabakitzen badute.

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen egoera horri konponbidea emateko, Sarrigurengo udalez gaindiko proiektu sektorialaren bitartez, eta 2007rako aurreikusi zuen lehen hezkuntzako bi ikastetxe egotea (950na ikasposturekin). Baina konpromiso hori ez da bete.

Une honetan agerikoa da espaziorik ez dagoela: jantokian txandak egin behar dituzte, ezin da ez talderik bikoiztu, ez tailerrik egin ere; uko egin behar izan zaio psikomotrizitate gelari, irakasleek ez daukate non bildu, eta abar. Argi dago, orobat, egoerak okerrera egiten duela 2014-2015 ikasturtean.

Gaur egun 12.000 pertsonatik gora bizi dira Sarrigurenen, eta Hezkuntza Departamentuak ez ditu horientzat premia-koak dituzten eta etorkizun hurbilean premia-koak izanen dituzten hezkuntza-instalazio publikoak.

Eguesibarko Udalak erabaki du eraikin berri baterako obrei ekitea, urtebete aurreratuta Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenei, instalazioak 2014-2015 ikasturterako prest edukitzeko eta eskari osoari aurre egiteko.

Eguesibarko udalak, ahalegin ekonomikoa eginda eta herritarren borondateari eta gehiengoaren borondate politikoari esker, ikastetxe berria eraikitzeko 1.434.159 euro aurreratuko lituzke.

Ematen zuenean Nafarroako Gobernuak obra horiek udalaren ekarpen ekonomikoarekin egin ahal izateko administrazio-prozedurak ezarriko zituela, Gobernuak atzera egin du. Ogasun Ministerioarekiko zailtasunak gainditzeko sei hilabeteko lan baten ondoren, Nafarroako Gobernuak eragotzi egiten du obrak aurreratzea, aurrekontu arloko ziurgabetasun-arrazoiak direla eta. Horrek eragotzi egiten du ikastetxea 2014-2015 ikasturterako prest edukitzeko obrak hastea, eta arriskuan jartzen da, halaber, 2015-2016 ikasturterako prest edukitze aldera Hezkuntza Departamentuak, hartutako konpromisoaren arabera, egin beharreko obrak hastea.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala eraiki dezan Sarrigurengo eskola publiko berria, Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak 1998an sinatutako hitzarmena betez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedurak ezar eta bete ditzan, Sarrigurengo ikastetxe berriaren instalazioak erabilgarri egon daitezzen 2014-2015 ikasturtearen hasierarako, Sarrigurenen bermatze aldera hala eskatzen duten ikasle guztiek eta/edo hala eskatzen duten familiek ikaspostu bat izatea ikastetxe publiko batean Haur eta Lehen Hezkuntzan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko errenta eman diezaien hura 2011-12-12a baino lehen eskatu eta ukatu edo murriztu zitzaienei.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oinarrizko errenta eman diezaien hura 2011-12-12a baino lehen eskatu eta ukatu edo murriztu zitzaienei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dutenek, norik bere parlamentu-taldearen izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

2012ko otsailean aldaketa gogorra egin zen oinarrizko errenta arautzen duen Nafarroako gizarte arloko legerian: Gizarteratze Errentari buruzko Legea onetsi zen, oinarrizko errenta indargabetu zuena. Aldaketa horren ondorioz 3.000 bat gutxiago dira familia jasotzaileak. Oinarrizko errenta jasotzeari utzi diote egoera administratibo irregularran dauden pertsonak, 24 hilabetez kobratu dutenek, Nafarroan erroldatuta 2 urte baino gutxiago daramatenek eta abarrekoek.

Garai hartan Nafarroako Gobernuak, nahiz eta legearen arabera 45 eguneko epean erantzun behar zuen (30 eguneko epean, eskatzaileak genero-indarkeria jasandakoa bazen), batez beste 5-6 hilabete behar izaten zituen oinarrizko errentaren eskaerak ebatzeko (kasu gehienetan 6 hilabe-

tez jasotzen zen errenta). Kudeaketa negargarri horrek kalte handia eragiten zien prestazioaren zain egon behar zuten familiei, are handiagoa kontuan hartzen badugu behar gorrian dauden familiak direla beti.

Baina kalte hori areagotu egin zen Gizarteratze Errentari buruzko Legea onetsi ondoren Nafarroako Gobernuak hartu zuen jokabidearen erruz. Eskaerak baloratzeko atzerapenei lege berriaren atzeraeragina gehitu zitzaien, eta legezko araudian ezarritako baldintzen arabera oinarrizko errenta eskatua zuten hainbat pertsonari lege berri askoz zorrotzagoaren baldintzen arabera egin zieten ebaluazioa. Eskaera aurkeztu zutenean oinarrizko errenta jasotzeko baldintzak betetzen zituzten ehunka familiari ezezkoa eman zitzaien, edo errentaren zenbatekoa murriztu.

Hori guztia ikusirik, Oinarrizko Errentaren aldeko Plataformak bidegabekeria horren aurkako errekurtsua jartzera bultzatu zituen eskubidegabetez ilegítimoan jasan zuten familiak. Ia 300 familiak gora jotzeko errekurtsua jarri zuten, Administrazioari berari zuzendua, eta guztiek ezezko erantzuna jaso zuten. Haietatik, Plataformaren laguntzarekin, 70etik gora familiak, doako justizia baliatuz, errekurtsua jarri zuten Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan.

Iragan apirilaren amaieratik hona Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak hainbat epaitan adierazi du Administrazioak ez zuela bete oinarrizko errentaren eskaerak apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuaren 12.2 artikuluan ezarritako gehieneko epean ebatzeko betebeharra. Hori dela eta, Auzitegiak iritzi dio eskaera egin zenean indarra zuen araua aplikatu behar dela kasu horietan, eta ez urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Araua, eta, beraz, oinarrizko errenta hartzeko eskubidea aitortu behar zaiela 2011ko abenduaren 12a baino lehen hura eskatu zuten pertsona guztiei. Garrantzitsua da azpimarratzea, Administrazioarekiko Auzien Salaren epai horiek diotenez, Administrazioak ebatzeko 45 eguneko epea duela eskatzaileak eskaera aurkeztu duen egunetik hasita (oinarrizko gizarte zerbitzuetan edo auzoko unitateetan aurkeztu da

eskaera), eta ez Administrazioak espediente administratiboari bidea ematen dion egunetik hasita (eskaera Nafarroako Gobernuaren erregistro orokorretik pasatzen da).

Azken buruan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak iritzi dio Administrazioaren funtzionamendu okerraren ondorioak, Administrazioak berak ezarritako epeetan ebatzi ez izanaren ondorioak alegia, ez zaizkiela prestazioaren onuradunei jasanarazi behar. Horregatik, epai horiek judizioko kostuak ordaintzera ere kondenatu dute Nafarroako Gobernuak.

Lehenbiziko epaien ondoren, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 28ko 481/2013 eta 483/2013 foru aginduetan aitortu egin zuen ez zuela bete Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuaren 12.2 artikuluan ezarritako 45 eguneko epean eskubideak ebazteko betebeharra, eta oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea aitortu zien 30 eskatzaileari. Horren ildotik, gainera, bideratzen ari ziren prozedura judizialak artxibatze eta auzi-jartzaileen uziak prozesutik kanpo betetzeko eskatu zuen.

Horrela Nafarroako Gobernuak jurisprudenziaren irizpideari men egin dio hasitako prozedurak amaitu beharrik izan gabe, eta prozedura judizialean amore eman ordez prozesu horietatik kanpo bete du auzi-jartzaileek eskatutakoa, oinarrizko errentarako eskubidea aitortzen dieten egin-tza administratiboak eman baititu 2013ko 481 eta 483 foru aginduen bitartez. Justizia Auzitegi Nagusian erreklamatu dutenei bakarrik aitortu die eskubidea, ordea, eta ahaztu egin zaio bidegabekeria zuzentzea gainerakoei, hots, eskatutako oinarrizko errenta ukatu zaien beste pertsonari edo eskatutako oinarrizko errentaren ordez gizarteratze errentaren zati bat (zenbateko osoaren % 80 edo 90) eman zaien horiei. Hala, errekurtsorik jarri ez zuten edo Gizarte Politiketako Departamentuan bakarrik jarri zuten familia askok kaltea jasan dute administrazio batek legez kontra jokatu duelako eta gobernu batek, batere sentiberatasun sozialik erakutsi gabe, familia behartsuak prestazio sozioekonomikorik gabe utzi dituen legedia onetsi duela.

Nabarmentzekoa da aipatutako foru aginduen onespenekin ekarri behar duela Administrazioak okerra zuzendu behar izatea kasu berean zeuden espediente guztietan, aplikatu behar ez zen lege bat aplikatuta bidegabeki baztertu ziren haietan, alde batera utzita eskatzaileak errekurtsioa jarri zuen ala ez ebazpenaren kontra. Bestela jokatu balitz, berdintasun printzipioa urratuko litzateke eta Administrazioa aberastuko litzateke

beren egoera sozial eta ekonomiko oso ahularen ondorioz beren eskubideak errekurtsio administrazioen eta are judizialen bidez erreklamatzeko zailtasunak dituzten pertsona eta familien bizkar. (Agian hemen azaldu behar litzateke, doako justiziarako eskubidea gorabehera, kudeaketak egiteko joan-etorrietarako dirua behar dela eta pertsona horiek oinarrizko premiak lehenetsi behar dituztela beren gastuetan, batez ere inolako diru-sarrerarik gabe gelditu direnean. Esan beharrik ez dago pertsona askoren ikuspuntutik kontu zaila dela, are pentsaezina, aurka egitea orain arte premia horiek ase dizkien Administrazioari, jakinda etorkizunean ere harengana jo beharko dutela ziur aski, ez baitirudi lan merkatuaren egoera ere konponduko denik.)

Nafarroako Gobernuaren erru aitorten horretan oinarrituta eta legez kontrako egoera zuzendu nahian Oinarrizko Errentaren aldeko Plataformak eskabide bat prestatu du, 2011ko abenduaren 12a baino lehen oinarrizko errenta edo horren berriztapena eskatu eta ezezkoa jaso duten edo eskubidea aitortuta ere gizarteratze errentaren % 90 edo % 80 baizik eman ez zaien familiek Nafarroako Gobernuaren erregistro orokorretako edozeinetan aurkez dezaten, zegokien denboraldiko oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea erreklamatzeko. Nafarroako Gobernuak, ordea, dagoeneko hasi da batzuei erantzuten eta eskubidea ukatzen die berriro ere. Bidaltzen duen gutunean Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudenzia soilik aipatzen da, eskatzaileari adierazten zaio bere eskaera ezetsi egin zela administrazio bidean, administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri ez zenez behinolako ebazpen hori irmoa dela ondore guztietarako, eta, beraz, Gizarteratze Ataleko buruaren iritziz ez dela bidezkoa beste erabaki bat hartzea, kasu honetan nonbait Nafarroako Gobernuak ez duelako judizioaren kosturik ordaindu behar.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du oinarrizko errenta eman diezaien, auzitegira jo ez badute ere, 2011ko abenduaren 12a baino lehen prestazio hori eskatu zuten eta geroago onetsitako foru lege bat aplikatuz ezezkoa eman edo prestazioa murriztu zitzaizkien eskatzaileei, berdintasun printzipioa ez urratzeko.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro, Patxi Zabaleta Zabaleta, Txema Mauleón Echeverría eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da, Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta ekitaldiak, urteurren hori ospatzeko.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita, Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta ekitaldiak, urteurren hori ospatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2014an ospatuko den Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren babesteko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nazio Batuek Familiaren Nazioarteko Urtea deklaratu zuten 1994a, "Familia, baliabideak eta ardurak, garatzen ari den mundu batean" goiburupean. Ekimen global hori zuzenduta zegoen hobeki konprenitzera familiarekin lotutako auziak eta nazioen gaitasun instituzionala hobetzera, familiarrekin lotutako arazoei aurre egiteko, politika zabalak aplikatuz.

Halatan, Nazio Batuen Erakundeak aitortu du, Biltzar Nagusiaren 66/126 ebazpenaren eta Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren 2012/10 ebazpenaren bidez, 2014ko urteurren hau aukera aparta dela familiaren sustapenari aipamen egiten dion orotan lankidetzaren areagotzeko, eta familia erdigunetzat hartzen duten programak sendotzeko ekintzak abiarazteko.

Ekimen horrek balio izanen du gizartearentzat hain oinarrizkoa den erakunde horren garrantziari buruzko hausnarketa serio bat egiteko eta bere funtzionamendu hobereenerako oraindik ere irabazi beharreko erronka sozial eta politikoak aztertzeko.

Nazio Batuen Erakundeak Biltzar Nagusiak orobat azpimarratzen du familiari buruzko politikak proposatu, burutu eta gainbegiratzearen garrantzia, eta azpimarra berezia jartzen du pobrezia desagerrarazteari dagokionez, enplegu osoaren, gizarteratzearen eta belaunaldien arteko elkartasunaren alde.

Halaber, Nazio Batuen Erakundeak berriro dio familiek lehentasunezko izan behar dutela administrazio publikoentzat, eta familia-politikek jarduketan multzo bat osatu behar dutela, halako moduan non, modu artikulatu, transbertsal eta integral batean, familiaren instituzioa aitortu, lagundu eta babestuko baita.

Parlamentu-talde Popularrean irmo sinesten dugu familiak oinarrizko gizarte-unitate bat direla, bere kideei zaintza materialak eta immaterialak ematen dizkiena modu pertsonalizatuan, bai eta belaunaldien arteko elkartasunaren eta gizarte-koehesioaren zutabe direla ere.

Bestalde, hogeigarren urteurrenaren oroitzapena une egokia da Nafarroako Gobernuak familiari laguntzeko plan berri bat taxutzeko, oraingo honetan izaera transbertsal eta integralekoa, familietan azken urteotan gertatzen ari diren aldaketa nabarmenei eta politika berriak jorratzeko beharrezanari erreparratuta.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Familiaren Nazioarteko Urtearen Hogeigarren Urteurrenaren kariatara, susta ditzan familiei babesa emateko ekintzak eta ekitaldiak, urteurren hori ospatzeko.

– Familiari laguntzeko plan integral bat taxutu dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin betiko konponbidea eman diezaion A-1 autobideaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean.

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behin betiko konponbidea eman diezaion A-1 autobideaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak eta Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Sustapen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behin betiko konponbidea eman diezaion Nafarroako Foru Komunitatearen (Ziordia) eta Arabako Lurralde Historikoaren artean A-1 autobiaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari.

Sarritan gelditu da agerian A-1 errepideko 392. kilometroaren parean gertatzen den arazoa; izan ere, Nafarroako Ziordia herrian dagoen N-240 errepideko biribilgunearen eta Arabako Lurralde Historikoaren mugaren artean ez dago ibiltzeko moduko loturarik bigarren mailako errepide-sarean. Loturarik ez egote horrek, alderdi horretako herrietako bizilagunei eta nekazaritza-garraioari eragiten dizkien eragozpenez gain, gatazka-gune handia bihurtu du inguru hori, bereziki txirindularririk pairatu behar izaten dutena.

2011ko udan, Sakanako eta Arabako zikloturistek salatu zuten arriskuan daudela hortik iragan behar duten bakoitzean; izan ere, Ziordiarren (Nafarroa) eta Eginoren (Araba) artean zerbitzuberik ez dagoenez, behartuta daude autobian sartzera, eta konponbide bat eskatzen zioten Nafarroako Gobernuari.

Egun haietan beretan –2011ko abuztuaren 22an–, Trafikoko Guardia Zibilak egindako txosten batek ere utzi zuen agerian han ez dagoela ibiltzeko moduko hautabiderik, eta balizko konponbidea gisa planteatzen zuen A-1 errepidearekiko pista paralelo bat asfaltatzea, txirindulari horiek autobia inbaditu gabe jarraitu ahal izan dezaten bidea egiten. Pista hori egoera tamalgarrian dago gaur egun, Foru Komunitateari dagokion zatian bakarrik (500 metro inguru); Arabako Lurralde Historikoari dagokion bide-zatia, aldiz, asfaltatuta eta egoera onean dago, mugatik aurrera.

Txosten hori ikusita, Ziordiko Udalak, 2011ko urriaren 13ko bilkuran, adierazi zuen beharrezkoa dela Nafarroako Gobernua inplikatzeko arazo honen konponbidean, udalek behin eta berriro adierazi duten bezala. Izan ere, data horietan beretan berriro ere sustatu ziren Udalaren eta Sustapeneko kontseilariaren arteko elkarrizketak, baina, tamalez, ez zen bideratu arazoaren konponbidea, gaur egun ere dirauena, ondorio tragikorren bat gertatzeko arriskuarekin.

Kontuan hartuta Nafarroako Gobernuaren eskumena dela errepideak egitea eta mantentzea; konponbidea izan daitekeen errepidea Ziordiko udal mugapean dagoela, eta sakoneko arazoa dela, kasu honetan, Arabarekiko bide-loturarik eza A-1 errepidetik kanpo, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat hitzar dezan Ziordiko Udalarekin Sustapen Departamentuaren bidez, konponbide bat emate aldera A-1 autobiaz bestelako bide-lotura erabilgarririk ez egoteari herri horren eta Arabako Lurralde Historikoaren artean, eta, behin konponbidea zehaztuta, udal horrekin batera finantza dezan konponbidea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu guztiz errefusatzeko duela Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen aurreproiektua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du guztiz errefusatzeko duela Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen aurreproiektua.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekin premiazko ez dezan inolako lege-

aldaketarik egin, baldin eta horrek herritarren eskubideen eta askatasunen murrizketa badakar.

3. Nafarroako Parlamentuk alaitik azkarren igorriko dio erabaki hau Barne Ministerioari”

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Giza Eskubideen Deklarazioarekiko bere erabateko konpromisoa adierazten baitu, eta bere errespetua erakusten baitio Nelson Mandelaren figurari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako herritarren herri-subiranotasuna ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, Nafarroako Parlamentuak Giza Eskubideen Deklarazioaren letrarekiko eta espirituarekiko bere erabateko konpromisoa adierazten du, bai eta eskubideak eta askatasun horien errespetua sustatzearekiko ere.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta errekonozimendua adierazten die giza eskubideen defentsan lan egiten duten pertsona guztiei, eskubide horiek munduko edozein tokitan errealitate bat izan daitezen.

3. Parlamentuak bere arbuio handiena adierazten du, munduko leku askotan eskubide horien unibertsalizazioa ziurtatzeko borrokatzen duten emakume eta gizonek pairatzen dituzten erasoen eta mehatxuen aurrean.

4. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du, krisi ekonomikoak arriskuan jartzen dituelako eskubideen, askatasunen eta berdintasunaren arloetan lortutako aurrerabideak, zeinak herritarren ahalegin bateratuari esker lortu baitira.

5. Nafarroako Parlamentuak bere errespetua adierazi nahi dio Nelson Mandelaren figurari; izan ere, Hegoafrikako Errepublikako lehen lehendakari beltzak –buruzagi moral eta politikoa eta giza eskubideen eta giza duintasunaren aldeko borrokalari nekazina bera– hitza, errespetua eta bestearen errekonozimendua erabiliz garaitu zuen apartheidaren erregimena, zeina oinarrিতua baitzegoen arraza-bereizkerian, pertsona batzuek besteak menderatzean eta umiliazioan, eta Hegoafrika arrazaniztun eta demokratikorako oinarriak ezarri zituen. Bere lekukotasuna erreferente politiko bihurtu da bost kontinenteetan, eta Nafarroako Parlamentuak horixe aitortu nahi du.”

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuak UEMAKo ordezkariak egindako bilera-eskariei ez erantzuteko arrazoiei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak UEMAKo ordezkariak egindako bilera-eskariei ez erantzuteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Osasuneko kontseilari Vera andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak zergatik darama 2012ko abendutik erantzun gabe UEMAKo ordezkariak egindako bilera-eskariei?

Iruñean, 2013ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakitekoa zein diren Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 2489/2009 Ebazpenean, non lanpostu guztietara sartzeko irizpide orokorrak ezartzen baitira, euskaraz jakitea kontuan ez hartzearen zergatiak.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein diren Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 2489/2009 Ebazpenean, non lanpostu guztietara

sartzeko irizpide orokorrak ezartzen baitira, euskaraz jakitea kontuan ez hartzearen zergatiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Lehendakari-tzako, Justiziako eta Barneko kontseilari Morrás jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren irailaren 14ko 2489/2009 Ebazpenean, non lanpostu guztietara sartzeko irizpide orokorrak ezartzen baitira, zergatik ez da kontuan hartzen euskaraz jakitea?

Iruñean, 2013ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Nafarroako Gobernuak Olaztiko Cementos Portland Valderrivas S.A.ren produkzio-prozesua baimentzeko jarraitu dituen irizpideei buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Olaztiko Cementos Portland Valderrivas S.A.ren produkzio-prozesua baimentzeko jarraitu dituen irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martinezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Europako araudiak exijitzen du dauden prebentzio-teknika hoberenak aplikatzea errausketa-prozesu orotan.

Berrikitan, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ingurumen-baimen integratua eman du Cementos Portland Valderrivas, S.A.k zementua fabrikatzeko eta magnesia oxidoa eta dolomia sintetizatua ekoizteko instalazio bat jar dezan Olaztiko udal-mugapean, instalazioa nabarmen aldatzeko proiektu baten ondorioz.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatu ditu gisa horretako produkzio-prozesu bat baimentzeko, gaur egun dauden prebentzio-teknika hoberekin uztartu gabe?

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Pirinioetako Lan Komunitatearen XXXI. Osoko Bilkurara joateko behar bezala baimendutako pertsonak kanporatzeari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Pirinioetako Lan Komunitatearen XXXI. Osoko Bilkurara joateko behar bezala baimendutako pertsonak kanporatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 7an Pirinioetako Lan Komunitatearen XXXI. Osoko Bilkura egin zen Baluartean. Osoko Bilkura horretara sartu ahal izateko,

gonbit-eskaera bat egin behar zitzaien antolakuntza-arduradunei.

Landa garapenari eta ingurumenari dagokienez Osoko Bilkura horretan jorratzen diren gaien garrantzia dela-eta, asko izaten dira bertan egoteko eskaria egiten duten pertsonak.

Osoko Bilkurarako sarreran, poliziak zeuden harreragileekin batera. Polizia horiek aldameneko areto batera eraman zituzten zenbait herritar, eta ondoren Baluartearen eraikinetik bota zituzten. Herritar horiek izena eman izanaren egiaztagiria zeukaten, ekitaldiaren antolatzaileek behar bezala emana.

Horrenbestez, ondoko galdera egiten diot Nafarroako Gobernuari:

- Zergatik ukatu zitzaien Osoko Bilkurara sartzeari behar bezalako baimena zeukaten pertsonen zerrendarik? Nafarroako Gobernuak ba al darabil ekitaldi jakin batzuetan parte hartzeko betoa duten pertsonen zerrendarik? Zerrenda horietan egoteak zer ondorio ditu, eskubide-murrizketari dagokionez?

Iruñean, 2013ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentroak kudeatzen dituzten enpresekiko itunetara bideratzen diren diru-zenbatekoak handitzeko asmoari buruzkoa.

BIKENDI BAREA Aiestaran Jaunak EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko zentroak kudeatzen dituzten enpresekiko itunetara bideratzen diren diru-zenbatekoak handitzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroak biltzen dituen sektoreko alderdi soziala eta enpresa hitzarmen kolektibo berri bat ari dira negoziatzen gaur egun. Hitzarmena itxi eta ezartzen denean, arlo horretako plantillei eraginen die.

Ez da ilogikoa pentsatzea zentro horietako langileen lan-baldintzetan aldaketak gertatzen ahal direla alderdi ezberdinen arteko negoziazio-prozesu ireki baten esparruan, eta negoziazioaren ondorioz igoera ekonomikoak gertatzea zentro horietan.

Halaber, eta aurrekorekin lotuta, aldi honetan ari dira egiten Nafarroan ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroak kudeatzeko hitzarmen berri gehienak

Foru Administrazioak egindako hitzarmen berri horietan aintzat hartu dira plantillen lan-eskubideak eta ezarritako moduluen prezioetan horiek duten eragina.

Moduluen kalkuluari dagokionez, bada inguruabar objektibo bat desadostasunak eta arazoak eragin ditzakeena arestian azaldutako prozesuetan –hitzarmen berriak eta langileen hitzarmenaren negoziazioa–; izan ere, hitzarmen berrietako zenbatekoen kalkuluan –oro har, lau urterako izanen dira– aintzat hartutako lan-baldintzak jadanik iraungita dagoen hitzarmen sektorial batekoak dira, eta zentroetako plantillen lan-baldintzak sektore-mahaiaren negoziazioaren parte dira oraindik.

Hortaz, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako Departamentuak ba al du asmorik ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroak kudeatzen dituzten enpresekiko itunetara bideratutako zenbatekoak igotzeko, baldin eta sektorearen hitzarmen berriak jasotzen badira igoera ekonomikoak ekar ditzaketen lan-hobekuntzak?

Baiezkoan,

Balizko egoera horiek marjina zehatzetan mugituko dira, ala muga jakin batzuetara doitu beharko dira? Zer tresnaren bidez egingen da igoera hori?

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta zentroetako langileei dagokien gaikuntza-osagarriaren bigarren tartearen kobrantza segurtatzeko neurriei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta zentroetako langileei dagokien gaikuntza-osagarriaren bigarren tartearen kobrantza segurtatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroetako langileei hitzarmen kolektiboaren arabera egun aplikatzen zaizkien ordainsarien artean

dago gaikuntza-osagarria. Osagarri hori 3 tartetan banatuta dago. Lehendabiziko tartea aplikatzen hasten da hitzarmena enpresan aplikatzen hasi eta 4 urtera; bigarren tartea, 8 urtera; eta hirugarrena, 11 urtera.

Gaur egun, lantoki bakoitza hitzarmen horri atxiki zitzaion urtearen arabera, gaikuntza-osagarriaren lehen edo/eta bigarren tartea ordaindu behar zaie ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroetako langileei, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Lotura zuzena dago langileen gaikuntza-osagarriak kobratzeko bermearen eta aipatu zentroak kudeatzen dituzten enpresetan egun indarrean dauden itunetako modulu ekonomikoak mantendu edo igotzearen artean.

Hortaz, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Gizarte Politiketako Departamentuak zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu, ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroetako langileei dagokien gaikuntza-osagarriaren bigarren tartea ordainduko zaiela bermatzeko?

Iruñean, 2013ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Nafarroako Gobernuak Tafallako Kultur Etxea finantzatzeko emandako diru-kopuruei buruzkoa eta kultur etxe horretan altzariak jartzeko laguntzak eta bera abian jartzea direla-eta dauden aurreikuspenei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Tafallako Kultur Etxea finantzatzeko emandako diru-kopuruei buruzkoa eta kultur etxe horretan altzariak jartzeko laguntzak eta bera abian jartzea direla-eta dauden aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Kultur Etxeen eta Gizarte Etxeen Eraikuntza Planaren barruan azken urteotan egindako obrarik anbiziotsuenetako bat izan da Tafallakoa. Bere garrantzi estrategikoari gehitu behar zaio eskualdeko izaera edukitzea, zeinak ahalbidetu baitzuen Gobernuak berak aurreikusitako ekarpena handitzea.

Obra zibila ia bukatu dagoenez gero eta instalazioa urbanizatu, altzariz hornitu eta abian jartzeari buruzko albiste fidagarririk ez dagoenez gero, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak zer diru-ekarpen egin dituen obra finantzatzeko.

2.- Obra gaur egun zertan den.

3.- Laguntza-aurreikuspena eta altzariz hornitzeko eta abian jartzeko egutegia.

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Errioxako jatorri izendapena duten eremuak Unescoren kultur ondare deklaratzeari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Errioxako jatorri izendapena duten eremuak Unescoren kultur ondare deklaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2012ko urriaren 8an, Eusko Jaurlaritzak "Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta mahas-

tiaren paisaia kulturala" dokumentua egiteko agindua eman zion Logroñoko Sepinum enpresari, Unescok munduko ondare deklaratzeko kultur ondasunen hautagaitzara aurkezteko.

Azalpen-txostenean esplizituki esaten denez, "bi autonomia erkidegok, Errioxak eta Euskadik, partekatutako hautagaitza da".

Errioxa jatorri-izendapenak Nafarroako Andosilla, Aras, Azagra, Bargota, Mendabia, San Adrián, Sartaguda eta Vianako herriak ere hartzen dituzenez, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuaren ustez, ekimen ona al da UNESCOk kultur ondare deklaratzeko Errioxa jatorri-deituraren espazioak?

- Nafarroako Gobernuak espediente horren prestalanetan parte hartu al du?

- Ezezkoan, zein izan dira arrazoiak?

- Gobernuak zer ekimen prestatu ditu plan horri atxikitzeko?

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Tuterako Udalarekin negoziatutako hitzarmena sinatzeko, zeinaren bidez urte anitzeko finantzaketa ezarri nahi baita Tuterako Musika Kontserbatorio Profesionalerako.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Tuterako Udalarekin negoziatutako hitzarmena sinatzeko, zeinaren bidez urte anitzeko finantzaketa ezarri nahi baita Tuterako Musika Kontserbatorio Profesionalerako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Pedro Rascón Macíasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2013ko ekainean, Tuterako Udalaren Osoko Bilkurak hitzarmen bat onetsi zuen, Nafarroako

Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekin adostua, Tuterako Udalaren "Fernando Remacha" Musika Kontserbatorio Profesionalaren funtzionamendurik ahal den onena eta finantzaketa egokia bermatzeko.

Nafarroako Gobernuak oraindik sinatzeke dauka hitzarmen hori, eta ez du horri buruzko inolako azalpenik eman.

Horrek ziurgabetasun handia eragin du kontserbatorioko hezkuntza-erkidegoan eta udalean berean; izan ere, urte anitzeko akordio hori gabe arriskuan dago Tuterako musika-hezkuntzako proiektuaren etorkizuna.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Tuterako Udalaren "Fernando Remacha" Musika Kontserbatorio Profesionala urte anitzeko izaeraz finantzatze aldera Tuterako Udalarekin negoziatutako hitzarmena sinatzeko eta, hortaz, aplikatzeko?

Ezezkoan, Nafarroako Gobernuak zer egingen du Tuterako Udalaren funtzionamendu normala ahalbidetzeko eta, hartara, Parlamentu honen gomendioak betetzeko?

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen hartutako erabakiak betetzeko eta ekitaldi honetan Nafarroako ikasleen gurasoen elkarten federazioetarako diru-laguntzen deialdiak egiteko.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen hartutako erabakiak betetzeko eta ekitaldi honetan Nafarroako ikasleen gurasoen elkarten federazioetarako diru-laguntzen deialdiak egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Pedro Rascón Macíasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Hezkuntza Departamentuaren 2013ko aurrekontu luzatuetan honako kontusail hau jasotzen da: 425005 42110 4819 324200 kontusaila, "Gurasoen eta ikasleen elkarte eta federazioentzako

diru-laguntzak? Kontusailak 95.000 euro ditu esleiturik (horietako 70.000, finkaturik).

2013ko urriaren 16ko bilkuran, Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu zuen, zeinaren bidez baimena eman baitzion Hezkuntza Departamentuari 45.000 euroko gastu-konpromisoa har zezan, Nafarroako Foru Komunitateko haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako gurasoen eta ikasleen elkarten federazioentzako laguntzen deialdiari aurre egiteko 2013an.

Laguntza horien deialdia egin ere ez da egin gaurko egunean, eta horrek arriskuan jartzen du entitate horietako batzuen jardura eta are iraupe-na bera, 35 urte baino gehiago eman ondoren seme-alaben hezkuntzan familien parte-hartzea sustatzeko zeregin garrantzitsuan.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Gobernuak berak hartutako akordioak betetzeko, eta ekitaldi honetan Nafarroako ikasleen gurasoen elkarten federazioentzako diru-laguntzak ebazteko?

Ezezkoan, Nafarroako Gobernuak zer egingen du federazio horietako zenbait ixtea ekiditeko, laguntza horiek gabe ezin izanen baitute aurrera egin?

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Galdera, Aurizberrin basea duen anbulantziari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Aurizberrin basea duen anbulantziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko kasuko departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Aurizberriko baseko anbulantzia zenbat aldiz erabili izan da beste eskualde batzuetako larrialdi-ko osasun-garraioaren osagarri gisa, bereziki Iruñerrian?

Iruñean, 2013ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Nafarroako Gobernuak zenbait unibertsitatekin dauzkan lankidetzaren hitzarmenei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak zenbait unibertsitatekin dauzkan lankidetzaren hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

duak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera egin nahi dio, idatziz erantzun dezan.

Nafar Gobernuak lankidetzaren hitzarmenak egin ditu urtero hainbat unibertsitatekin, nafar ikasleek Nafarroako ikastetxeetan praktikak egin ditzaten ahalbidetzeko xedez. Aurtengo ikasturtean, urriaren 2ko 506/2013 ebazpenaren bidez onartu zen hitzarmen eredu.

Baina Nafar Gobernuaren web gunean 2012-2013 ikasturterako sinatutako hitzarmenak besterik ez dira ageri. Zein unibertsitatekin sinatu da hitzarmenik aurretik? Eta ez bada sinatu, asmorik al dago? Zeinekin? Aldatu egin al dira irizpideak? Hala bada, zergatik?

Iruñean, 2013ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamen-

Galdera, pertsonak eta ibilgailuak lurzoru ez-urbanizagarriko bideetatik iragatea arautzearen gainean Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, pertsonak eta ibilgailuak lurzoru ez-urbanizagarriko bideetatik iragatea arautzearen gainean Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruzek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Pertsonak eta ibilgailuak lurzoru ez-urbanizagarriko bideetatik iragatea arautzearen gainean Parlamentuak 2012ko martxoan onetsitako mozioa ikusita, hauexek jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak mozio hori betetze aldera egindako jarduketak eta xede horrekin zer entitatekiko harremanak izan diren.

Iruñean, 2013ko azaroaren 27an.

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2011n, 2012an eta 2013an artatutako lan istripuei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2011n, 2012an eta 2013an artatutako lan istripuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zenbat lan-istripu artatu ditu laguntza-maila ezberdinetan 2011n, 2012an eta 2013an? Zenbat egiten du mutuei kontzeptu hori dela-eta urte bakoitzean fakturatutakoak? Eta zenbat, Administrazioak kobratutakoak?.

Nafarroako Gobernuak zer protokolo, kontrol eta jarraipen mota egiten du bermatze aldera lan-istripuak kasuko mutuetan artatzen direla edo, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura joa-

nez gero, faktura mutuari eginen zaiola eta ezarritako zenbatekoa ordaintzen dela?

Nafarroako Gobernuak zer datu edo estimazio darabil lan-istripuen kasuan sistema publikoan lan-

gileendako laguntza eman izanari dagokionez, baina kasuko mutuari faktura egin gabe?

Iruñean, 2013ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Foru Gobernuaren eta Estatukoaren arteko hitzezko akordioari buruzkoa, trafikoaren arloko eskumenen transferentzia dela eta.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Foru Gobernuaren eta Estatukoaren arteko hitzezko akordioari buruzkoa, trafikoaren arloko eskumenen transferentzia dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Bildu-Nafarroak Parlamentuan egindako galdera bati emandako erantzunean, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak onartu zuen urratsak egin direla trafikoko eskumenak hartzeari dagokionez, halako moduan non hitzezko akordio bat lortu baita Foru Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren artean. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Estatuko Gobernuak eta Foru Gobernuak trafikoko eskumenak eskualdatzearen arloan lortutako hitzezko akordioaren edukia.

2.- Akordio hori gauzatzeko aurreikusitako epeak.

3.- Akordio horrek Foru Komunitateko funts publikoentzat ekarriko duen kostu ekonomikoa.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako eremu euskalduneko eta eremu mistoko udalen izendapen ofizialei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako eremu euskalduneko eta eremu mistoko udalen izendapen ofizialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako eremu euskalduneko eta eremu mistoko udalen izendapen ofizialen zerrenda. Kontzejuen izendapen ofizialena ere eskatzen dut, udalerrri konposatuen kasuan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Europar Batasuneko txosten baten arabera osasunerako zentimoa legearen aurkakoa izan daitekeela dioen berriari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Europar Batasuneko txosten baten arabera osasunerako zentimoa legearen aurkakoa izan daitekeela dioen

berriari buruzkoa zen, eta 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

